



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

*Donostiako Elizbarrutiko apaiz, diakono, erlijioso eta erlijiosa,
eta Jainkoaren Herri osoari*

Donostian, 2026ko martxoaren 25ean

Anai-arreba maiteok,

Aste Santuan, beste urte batez, Jaunaren Nekaldiaren, Heriotzaren eta Piztueraren gertaera salbagarriak gogoratuko ditugu. Ohitura den bezala, Krisma Meza ospatuko dugu eta bertan olio santuak bedeinkatzeaz gain gure apaizak promesak berrituko ditugu, **Asteazken Santuan, apirilaren 1ean, goizeko hamaiketan**, Artzain Onaren Gotzain Elizan.

Apaizentzat sakontasun handikoa den Eukaristia honetan, Jaunarekin eta gure artean dugun batasuna estutzen dugu, elkartearen aurrean agerian jarritz apostoluen oinordekoa den gotzainaren inguruan, presbiterio bereko kide garela. Bihotz-bihotzez animatzen zaituztet komunio-adierazpen eder honetan parte hartzera eta zuekin meza berezi hau ospatzera.

Pazko Hirurrenaren eta Jaunaren Piztueraren ospakizun gozoa opa dizuet guztioi. Jau-nak bedeinka zaitzatela beti. Nire maitasun zintzoenaz.

In Corde Matris,

✠ Fernando Prado Ayuso, CMF
Donostiako gotzaina